

Antxiñako fotografixia

Usakoko presapeia ur barik

Aurtego udan be, bape eguraldi itxurosorik egitten badau, makiña bat jentek joko dau **Usako** aldera, errekan freskaittera eta eguzkixa hartzera. Garai batian inguruko auzuetaquak ziran hango bañistak: Zañartu, Garagaltza, San Pedro, Garibai, Goribar eta abarretakuak. Mutikuak batez be hasieran, neskatillak gerotxuago. Baiña poliki-poliki kaletar asko be faten hasi zan, kanposantu eta Urrututik zihar, **Artixa** errekaqu presagain eta presape horretara.

Kaletarrok bageukan beste igarileku batzuk: **Medikupresia**, **San Martin** azpikua eta **Ugarkaldekua**, esate baterako; baiña Artixa errekaquak garbixaguak eta urtsuaguak ziran: **Miru-erreka**, **Albarritza**, **Zuazola**, **Usako** eta **Jardiñazpiko** presa inguruak askoz hobiak ziran. Urrintxuago egoitia, horixe. Estimaziñorik haundixena, mutikuen artian behintzat, Usakokuak eukan. Bizikletia ugarittu zanian, oñatiarrak ez ezik, mondraguetarrak eta albuetaqu beste herri batzuetakuak be ikusi euen harako bidia; erruz, gaiñera. Akordaitten naiz inguruko mutikuak zera esaten ebela: *“laister Etxandi-Elazarra parian ‘kanpotarrentzako’ kateia ifiñi biharko xuaqu!”* Zer egingo euen, ba, leiztar gizarajuok, ordurako Deba erreka ziharo kutsatuta eta zikiña baldin baetorren?

Dana dala, gaurko argazki hau arrazoi berezi bategatik dakartzuegu hona: Usakoko **presapeia erabat hutsik** ikus-teko aukeria eskintten doskulako. Hori 1935 aldera izan zan, gerria baiño aurtxuago. **Amorrañak errekan gora igoteko eskillara** horreittako bat egitteko asmua eguen, gora-txuago dagueu Zuazolako presakuaren antzerakua, baiña ha baiño haundixagua. Obriori moduketako hustu zan presapeia, ura Usakoko errotarako malatutik desbideratuta, seguru asko. Eta orduan agertu ziran hor ikusi geiken haitz ikusgarrixok. Gerora harriztar gehixenok kendu egin ziran, orain dala urte batzuk igarilekua zabalketako lanairi ekin otsaiñian. Aittatu dogun amorrain-eskillaria egin, egin zan, baiña akatsen bat baeukan, nunbait. Errotako jabiak, **Migel Enparantzak**, *“horrek etxok asko iraungo”* esan ei eben. Eta halaxe gertatu zan, hurrengo uraundittan bota ebelako errekiak obra guztia.

Fotografixako mutikuak eztittugu danak ezaguketarik izan. Behian eskuman agiri dana Garibaiko errotako **Joxe Mari Lizarralde** da, hori ziur; goixan eskumakua, Upaingo **Juanito Zelaia** izan leike; eta bestion aztarranik eztogu, tamalez, atara ahal izan. Ia baten batek hori jakittekko modurik dakon, edozein modutan be, Zañartu / San Pedro aldekuak izango dira-eta. Eskertuko geunskio. Argazkixa **Dionisio Mugartzak**, Zañartuko izen bereko baserriko semiak, ataratakua da. Donisiok eta bere familiariak gerra ostian erloju-dendia euki euen urte askuan Oñatiko Kale Zaharrian. Fotografixa-munduan be jarraitu eben **Patxi Elortzarekin** batera, Kale Zaharrian bertan, beheratxuago.



J. E

Argazkixa Irene Mugartzaren bidez eskuratu dogu. Argibidiak, berriz, Arantxa Enparantza, Juan Zelaia eta Mikel Altunari zor dostegu. Milla esker danoiri!